BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# ALDUNDIAREN KALKULUEK ERAKUSTEN DABENEZ, A-8 AUTOBIDEKO ERREKALDEKO BIDEZUBIA "116 HILEBETEKO" IZAPIDEEN ETA OBREN OSTEAN KENDUKO DA

- **Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusien kontrolerako osoko batzarrean esan dauenez, saihesbideak eta eraisketak ahalegin tekniko, administratibo eta aurrekontu "handia" eskatuko dabe.**

- **Rementeriak azpimarratu dauenez, proiektua ezagutzen danean eta aurrekontua dagoanean hartuko dau bere Gobernuak AHTa Bilbon lurperatzeko prozesuan Aldundiak izango dauen parte-hartzearen inguruko erabagia.**

(Gernikan, 2022ko maiatzaren 25ean). Bizkaiko Foru Aldundia "aurrera doa" Errekaldeko A-8 autobideko bidezubiak kentzeko lanetan, "gaur egun posible dan neurrian", Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusien kontrolerako osoko batzarrean adierazo dauenez. Epe laburrerako azpiegituren arloan "hartutako beste konpromiso batzuk" dagozan arren, Aldundiko arduradunak Gernikan ziurtatu dauenez, bere sailak "pausuak emoten" jarraitzen dau, lekuan bertan aurretiazko azterlanak eginez, "puntu kritikoak" ezagutzeko eta, "6 hilebeteko" epean, lizitazinoaren plegu teknikoa prest izateko, "horren ostean" Errekaldeko saihesbidearen eraikuntza-proiektua idazteko kontratua egiteko. Pradalesek kalkulau dauenez, "116 hilebete" iraungo daben tramiteak eta "konplexutasun handiko" obrak beharko dira, Errekalde hormigoizko hesi bako auzoa izan daiten.

Foru Gobernuari gai horren inguruan galdetu deutsen batzarretako talde biek, EH Bilduk eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak, hain zuzen be, Bilboko auzoaren gaineko bidezubiak kentzea ahalbidetuko dauen saihesbidea gauzatzeko pausuak emon daizala eskatu deutse Bizkaiko Foru Aldundiari. Eduardo Andrade popularrak esan dau Foru Gobernuak ez dauela inoiz konpromiso sendorik izan Errekaldeko bizilagunakaz, eta, horregaitik, "lehentasunezko" proiektua izatera pasetako eskatu dau, orain "nahikoa diru dagoalako".

Modu berean, Raul Mendez EH Bilduko batzarkideak, saihesbidea eraisteko eta eregiteko izapideei ekiteko denporaren ganeko konpromisoa eskatu deutso Aldundiari;

izan be, daborduko “47 urte” daroez “kea, emisioak, kutsadurea, zaratea eta istripu larriak” jasaten. “Zorra da, eta ez dago atxakiarik”, batez be martian Bilboko HAPO onartu zanetik, eraikuntza-proiektua egiten hasteko eta proiektu horri Supersur izenekoari edo Lamiakoko erreka azpiko errepideari emoten jaken “lehentasun bera” emoteko.

Hitz “potolo” horreen ostean, Pradalesek gogora ekarri dau Aldundiak “orain arte esan dauena”, eta 2019an onartu zan Errepideen Lurraldeko Arloko Planaren Jarraibideen eta Erespide Orokorren Dokumentua gogorarazo dau. Bertan, plan “posibilistea” ezarri zan, Bilboko Hirigintza Plan Orokorra onartu ostean proiektua gauzatzeko bidean aurrera egiteko, eta hori joan dan martiaren 31n gauzatu zan. Plan horretan, daborduko, “II. Alternatibea” deitutakoa jasoten da, konponbide “egokiagoa”, Udalagaz adostua, Masustegi eta El Fango artean 2.200 metroko errepidea barria eginez, gehienak lurpetik.

Pradalesek gogorarazo dauenez, bidezubiak guztiz kentzeko beharrezkoa da aldez aurretik saihesbide hori eregitea. Gai bi horreek aztertzeak, “administrazino-, urigintza- eta ingurumen-izapideak egiteko bide luzea eskatzen dau, eta horreek guztiak gainditu behar dira”. Hau da, saihesbidearen eraikuntza-proiektua egin ostean, eraitsi aurretik eginda egon behar dan alternatibarako –”48 hilebete” beharko dira horretarako–, beste “68 hilebete gehiago” beharko dira saihesbidea eregiteko eta bidezubia eraisteko. “Egia esateko”, guztira, “116 hilebeteko etenbako lana” beharko da saihesbidea eregiteko eta bidezubia eraisteko, hau da, ahalegin tekniko eta administratibo handia, bai eta aurrekontu aldekoa be.

## INDUSTRIA-ONDAREA ETA ZAINTZAILEEN ATSEDENA

Beste alde batetik, beste itaun baten bidez, Elkarrekin Bizkaia taldeak Bizkaiko kultur ondare higiezina kontserbetako eta babesteko foru-politikak ezagutu gura izan ditu. Hector Fernandezen esanetan, Aldundiak “ez dau ezer egin gura”, arriskuan dagoan kultur ondasunaren aurrean zuzenean esku hartzeko legeak gaitasuna emonda be, Euskal Errotak Eraikinagaz gertatzen dan moduan. Foru erakundeak holango kasuetarako funts bereziak erabili daizala eskatu dau, eta ez daiala bakarrik “bitartekari” moduan jardun. Hori da jarrerarik “merkeena”.

Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, talde moreak eskatu deutsan “balantzean” oinarrituta, arau-esparrua argi itxi gura izan dau, hau da, Aldundiaren eginkizunak mugatzen dituan Euskal Kultur Ondareari buruzko 6/2019 Legea. Lege-esparru horren barruan, Aldundiak, azken zazpi urteetan, “1.800 esku-hartze” egin ditu babestutako ondasunetan, hau da, batez beste “250 esku-hartze” urtean. Aldi horretan, ondare horren egoera baloretako “1.400 ikuskapen” egin dira.

Zenbaki horreek hor dagozan arren, Bilbaok esan dau ahaleginak “mugatuak” dirala. “Gehiago egin gurako geunke, baina gaur egungo egoerak beste lehentasun batzuk marketan deuskuz”.

Itaunen atala Zaintzaileen Estatutuaren hedapenagaz amaitu da. EH Bilduren eretxiz, datu “kezkagarriak” lortzen ari da, 221 zaintzailek bakarrik hartu ebelako 15 eguneko atsedenaldia 2021eko bigarren seihilekoan. Koalizino abertzaleak kasuen koordinatzailearen hedapenaz eta Zaintza Eskolak sektorean daukan parte-hartzeaz be galdetu dau.

Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatuak denporea eskatu dau atseden programak Bizkaiko gizartean “finkatu” daitezan; izan be, eboluzino “positiboa” ikusten dogu, eta 2019an martxan jarri ziranetik, gorakada “esponentziala” izan dabe. Aurtengo lehenengo lauhilekoan, “bosgaitik” bidertu dira “oporretako” aste bi horreek hartzea eskatu daben zaintzaileak. Urtarrila eta apirila bitartean, “73” izan ziran, eta 2021eko aldi berean, barriz, “13”. Horri gehitu behar jako desgaitasunen bat daukien personentzako atseden-lekuek “% 33ko” igoerea izan dabela, edo Eguneko Zentroen bidez egunero atseden parziala hartzeko beste formula bat erabilten daben “1.200 personatik gora” dagozala.

## AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK

Ahozko erantzun-eskeen atalean, oposizinoko taldeek gai honeen inguruko erantzun-eskeak eskatu deutseez Aldundiari: AHTaren iritsiera Bilbora, Elorrioko Ibarrako egoitzea kudeetako Ama Mesedetakoakaz egindako hitzarmena, Usansoloren desanexinoa, 2021eko Errentaren kanpainako aurrez aurreko kanala eta Alonsotegiko bidegorria.

Ahaldun Nagusia barriro igon da Foru parlamentuko atrilera –zezeilaren 22ko kontroleko osoko batzarrean be egin eban–, talde bereziari erantzuteko, Aldundiak AHTaren Bilboko lurperatzea eta Abandoko geltokia finantzauko dituan ala ez argitzeko. Unai Rementeriak adierazo dauenez, erabagia “hartu behar danean” hartuko da, hau da, obraren ezaugarriak ezagutzen diranean eta beharrezko aurrekontua marraztuko dauen proiektua dagoanean, “trenbidearen eta urigintzaren eskumenen barruan”, gogorarazo dau.

EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak desgaitasuna daukien personentzako Ibarrako (Elorrio) zentroa kudeetako Aldundiak Ama Mesedetakoakaz daukan lankidetza-hitzarmenari buruz galdetu dabe. Sergio Murillok jakinarazo dau gaur egun bere sailak 74 plazatatik “63 hitzartuta dituala” eta inbertitutako diru publikoa “justifikauta” dagoala.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Jakin badaki kontratautako 43 personen soldatak ordaintzeko eta erabiltzaileei arretea emoteko erabili dala.

Talde moreak Usansolo Galdakaoko udalerritik desanexionetako prozeduraren egoerea ekarri dau osoko batzarrera. Azkenengo kapitulua auzoan martiaren 27an egindako herri-galdeketea da. Galdaketak banaketaren aldeko % 80ko babesa erakutsi eban. Udalak daborduko bialdu deutso Aldundiari prozesua hasteko behar dan dokumentazinoa.

Elixabete Etxanobe Herri Administrazinorako eta Erakunde Harremanetarako diputatuak baieztu dauenez, nahikotasun ekonomikoari buruzko txostena amaituta, foru batzorde juridikoa memoria aztertzen ari da, “bagilaren 16an” epea amaitu baino lehen erespena emoteko. Horren ostean, Gobernu Kontsejuak, auzia Bizkaiko Batzar Nagusietara eroatearen inguruko behin betiko erabagia hartu beharko dau.

EH Bilduren erantzun-eskeei erantzunez, Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantzako diputatuak 2021eko errenta aitorpenaren aurrez aurreko kanalari buruzko hainbat xehetasun azaldu ditu, eta zehatzago, kanal hori erabilita egin ezin diran aitorpenei buruzkoak. Diputatuak onartu dau “operazino konplexuak” barne hartzen dituen “salbuespenak” dagozala, horreen kopurua “oso txikia” dan arren. Ez da kanpaina honetako nobedadea.

Arantza Urkaregi EH Bilduko kideak lehen banketxeetan egiten ziran eta zergadunei aholkularitza kontratetea eskatzen deutseen kasu konplexu horreei be erantzuteko eskatu dau. Haren berbetan, “asko” dira, eta adibide moduan etxebizitza bat heredetan dan kasuak edo dibortzioak jarri ditu.

Beste alde batetik, Imanol Pradalesek jakinarazo dau bere saila BI-3651 errepidearen paraleloa izango dan soluzino “bideragarria” ari dala lantzen Alonsotegiko uriguneа Ularkigaz eta Arbuiogaz bidegorri baten bidez lotzeko; izan be, Alonsotegiko Udalak defendiduten dauen hasierako alternatibea Cadaguatik La Roblako zutabeak erabilten dituan trazadurea da, eta URA Agentzia eta Kantauriko Konfederazino Hidrografikoa horren kontra agertu dira daborduko. EH Bilduk “akordioa” eskatu du Udalagaz, ibilbide hori gauzatu ez daiten. Pradalesek baieztu dauenez, “daborduko horretan ari dira”.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN CALCULA QUE LA ELIMINACIÓN DEL VIADUCTO DE REKALDE DE LA A-8 LLEGARÁ TRAS "116 MESES" DE TRÁMITES Y OBRAS

- **El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, dice en el pleno de control de las Juntas Generales de Bizkaia, que la variante y el derribo requerirán de un "enorme" esfuerzo técnico, administrativo y presupuestario.**

- **Rementeria insiste en que su Gobierno tomará una decisión sobre la participación de la Diputación en el soterramiento del TAV en Bilbao cuando se conozca el proyecto y exista un presupuesto.**

(Gernika, a 25 de mayo de 2022). La Diputación foral de Bizkaia "avanza" en la eliminación de los viaductos de la A-8 de Rekalde "en lo que hoy es posible", según ha mantenido hoy el diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, en el pleno de control de las Juntas Generales de Bizkaia. Pese a que existen "otros compromisos adquiridos" en materia de infraestructuras a corto plazo, el responsable foral ha asegurado en Gernika que su departamento "sigue dando pasos", iniciando los estudios previos sobre el terreno para conocer los "puntos críticos" y tener, en un plazo de "6 meses" el pliego técnico de licitación para contratar "posteriormente" la elaboración del proyecto constructivo de la variante de Rekalde. Pradales ha calculado que serán necesarios "116 meses" de trámites y obras de "enorme complejidad" para que Rekalde disfrute de un barrio sin estas barreras de hormigón.

Los dos grupos junteros que han interpelado al Ejecutivo foral por esta cuestión, EH Bildu y grupo Mixto-PP Bizkaia, han pedido a la Diputación precisamente que se den pasos en la materialización de una variante que permita eliminar los viaductos sobre el barrio bilbaíno. El popular Eduardo Andrade ha dicho que el Gobierno foral "nunca" ha tenido un compromiso "firme" con los vecinos y vecinas de Rekalde y, por eso, ha pedido que pase a ser un proyecto "prioritario", ya que ahora "hay suficiente dinero".

En la misma línea, el apoderado de EH Bildu Raúl Méndez ha pedido una fecha a la Diputación que ponga fin a la construcción de una variante y posterior derribo del viaducto, ya que son "47 años" sufriendo "malos humos, emisiones, contaminación, ruidos y accidentes". "Es una deuda y no hay excusas", especialmente desde la aprobación en marzo del PGOU de Bilbao, para que se inicie la elaboración de un

proyecto constructivo y se de “la misma prioridad” a este proyecto que a la Supersur o al subfluvial de Lamiako.

Tras estas palabras “gruesas”, Pradales ha recordado lo que el Gobierno foral “ha mantenido hasta ahora”, trayendo a colación el Documento de Directrices y Criterios Generales del PTS de Carreteras que fue aprobado en el año 2019. En él se establecía un plan “posibilista” para avanzar en la materialización del proyecto tras la aprobación del Plan General Urbanístico de Bilbao, cuestión que fue finiquitada el pasado 31 de marzo. En dicho plan se recoge ya la llamada “Alternativa II” como solución “más adecuada”, acordada con el ayuntamiento, mediante una vía nueva de 2.200 metros de longitud, la mayoría subterránea, entre Masustegi y El Fango.

Pradales ha recordado que para la completa eliminación de los viaductos es necesario previamente construir esta variante. Ambas cuestiones exigen “un largo camino de estudios, de trámites administrativos, urbanísticos, y medioambientales que se deben ir superando”. Es decir, tras la elaboración del proyecto constructivo de la variante, la alternativa que se necesita antes de la demolición, que se completarán en “48 meses”, serán necesarios “68 meses adicionales” de obras para construir la variante y demoler el viaducto. En total, “la realidad” es que “serán necesarios 116 meses de trabajo constante y permanente” para construir la variante y derribar el viaducto, lo que requerirá de un “enorme esfuerzo técnico, administrativo y llegado el caso presupuestario”.

## PATRIMONIO INDUSTRIAL Y DESCANSO DE PERSONAS CUIDADORAS

Por su parte, el grupo Elkarrekin Bizkaia, a través de otra Interpelación, se ha interesado por conocer las políticas forales de conservación y protección del patrimonio cultural inmueble en Bizkaia. Héctor Fernández ha asegurado que la Diputación “rehúye de actuar” cuando la ley le capacita para intervenir directamente ante un bien cultural que está en peligro, como ocurre con el Edificio Molinos Vascos. Ha pedido que la institución foral eche mano de fondos especiales para estos casos y que descarte actuar solo como “mediador”, que es la postura “más barata”.

La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao, en base al “balance” que según ella le ha pedido el grupo morado, ha querido dejar claro el marco normativo, como es la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasca, que limita las funciones del Ejecutivo foral. Dentro de este marco legal, la Diputación ha realizado en los últimos siete años, “1.800 intervenciones” en bienes protegidos, lo que da una media anual de “250 intervenciones”. Asimismo, se han realizado en este periodo “1.400 inspecciones” para valorar el estado de este patrimonio. Pese a estos números, Bilbao ha dicho que

los esfuerzos son “limitados”. “Nos gustaría hacer más pero la situación actual nos marca otras prioridades”.

El apartado de las Interpelaciones ha concluido con el despliegue del Estatuto de las Personas Cuidadoras que a juicio de EH Bildu está obteniendo datos “preocupantes”, ya que únicamente 221 personas cuidadoras se acogieron al descanso de 15 días en el segundo semestre de 2021. La coalición abertzale ha preguntado también por el despliegue de la persona coordinadora de casos y por la participación del sector en la Zaintza Eskola.

El diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha pedido que se de tiempo a que los programas de respiro “cojan poso” en la sociedad vizcaína, ya que vemos una evolución “positiva” y desde que se pusieran en marcha en 2019, el aumento esta siendo “exponencial”. En el primer cuatrimestre de este año se han multiplicado “por cinco” las personas cuidadoras que han solicitado acogerse a esas dos semanas de “vacaciones”. Entre enero y abril fueron “73”, frente a las “13” del mismo periodo de 2021. A esto hay que sumar el aumento “en un 33%” de las plazas de respiro para personas con discapacidad, o las “más de 1.200 personas” que cuentan hoy con otra fórmula de respiro parcial a través de los Centros de Día.

PREGUNTAS ORALES

En el apartado de las preguntas orales, los grupos de la oposición han cuestionado al Ejecutivo foral por la llegada del TAV a Bilbao, un convenio con las Madres Mercedarias para la gestión de la residencia de Ibarra, en Elorrio, la desanexión de Usansolo, el canal presencial de la campaña de la Renta 2021, y el bidegorri de Alonsotegi.

El Diputado General ha vuelto a subir al atril de la Cámara foral –ya lo hizo en el pleno de control del 22 de febrero por la misma cuestión- para responder al grupo Mixto en relación a si la Diputación va a entrar a financiar el soterramiento del TAV en Bilbao y la estación de Abando. Unai Rementeria ha mantenido que la decisión se tomará “cuando se tenga que tomar”, es decir, cuando exista un proyecto que dibuje las características de la obra y detalle el presupuesto necesario, “en un ámbito competencial que es ferroviario y urbanístico”, ha recordado.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han preguntado por el convenio de colaboración que mantiene la Diputación con las Madres Mercedarias para la gestión del centro de personas discapacitadas de Ibarra, en Elorrrio. Sergio Murillo ha informado que actualmente su departamento “tiene conveniadas 63 plazas” de un total de 74 y que el

dinero público invertido “está justificado”. Le consta que se ha destinado a pagar los salarios de las 43 personas contratadas y a dar atención a los usuarios y usuarias.

El grupo morado ha traído al pleno el estado del procedimiento de desanexión de Usansolo respecto al municipio de Galdakao. El último capítulo es la consulta popular celebrada en el barrio el 27 de marzo y que reflejó un 80% de apoyo a la separación, así como la documentación que el ayuntamiento ha remitido ya a la Diputación para que se inicie el proceso.

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, ha confirmado que concluido el informe de suficiencia económica, la comisión jurídica asesora foral está analizando la memoria para emitir un dictamen antes de que finalice el plazo, “el 16 de junio”. Después será el Consejo de Gobierno quien tiene que tomar una decisión definitiva sobre si eleva la causa a las Juntas Generales de Bizkaia.

A preguntas de EH Bildu, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha explicado algunos detalles sobre el canal presencial de la declaración de la renta 2021, y en concreto sobre las declaraciones que no pueden hacerse por esta vía. El diputado ha admitido que existen “excepciones” porque incluyen “operaciones complejas”, aunque su número es “ínfimo”. Tampoco es una novedad de esta campaña.

Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha pedido que se atiendan también estos casos complejos que antes se hacían en las entidades bancarias y que ahora los contribuyentes se ven obligados a contratar una asesoría. Según ella, son “muchos” y a puesto como ejemplo os casos en los que se hereda una vivienda o en un divorcio.

Por otro lado, Imanol Pradales ha informado que su departamento está trabajando en una solución  “viable” paralela a la carretera Bi-3651 para enlazar el casco urbano de Alonsotegi con Ularki y Arbuio mediante un bidegorri, ya que la alternativa inicial que defiende el ayuntamiento de Alonsotegi es un trazado que utilice los pilares de La Robla por el Cadagua, algo a lo que se ha opuesto ya la Agencia URA y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico. EH Bildu ha pedido un “acuerdo” con el ayuntamiento para evitar que se materialice el recorrido en el que “ya se está trabajando”, ha confirmado Pradales.